

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2235

274/2018 EBAZPENA, martxoaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Haurrentzako Psikiatriako Medikuek kategorian lotura estatutarioko izaera lortzeko hautaketa-probetako epaimahai kalifikatzailea izendatzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bitartez onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 111/2018 Ebazpenaren bidez, onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Haurrentzako Psikiatriako Medikuek kategoriako oinarri espezifikoak.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren Epaimahai Kalifikatzailea izendatzea. Hori ebazpen honen I. eranskinean jasotako kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek duen egunetik aurrera emango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoari jarraituz, Ebazpen honen kontra gorako errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 1a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.

I. ERANSKINA

FAK. ESP. HAURRENTZAKO PSIKIATRIAKO MEDIKUA

Presidentea:

- Titularra: María Elisa Gómez Inhiesto.
- Ordezkoa: María Marbella García Urbaneja.

Lehen Epaimahaikidea:

- Titularra: María Aránzazu Fernández Rivas.
- Ordezkoa: Eva Sesma Pardo.

Bigarren Epaimahaikidea:

- Titularra: María Begoña Garmendia Aldasoro.
- Ordezkoa: Natalia Arrechea García.

Hirugarren Epaimahaikidea:

- Titularra: Fernando González Serrano.
- Ordezkoa: Daniel Betancor Pérez.

Laugarren Epaimahaikidea:

- Titularra: Cristina María Rodríguez Herrera.
- Ordezkoa: Carolina Liaño Sedano.

Bosgarren Epaimahaikidea:

- Titularra: José Luis Gutiérrez Iradi.
- Ordezkoa: Miren Arantza Múgica Eizmendi.

Seigarren Epaimahaikidea:

- Titularra: Jon García Ormaza.
- Ordezkoa: Luis Ugarte Aróstegui.

Idazkaria:

- Titularra: Eusebio Martín Sánchez.
- Ordezkoa: Francisco Urtusagaste Orue.